

Maitane Barrenechea Carrascok doktore-tesia irakurri du

2012/03/05

Arrasaten otsailaren 29an, goizeko 12:00etan Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Maitane Barrenechea Carrasco Doktoregaiak bere doktore-tesia aurkeztu zuen Garaiko Poloko areto nagusian. Tesiaren izenburua Design and implementation of multiuser MIMO precoding algorithms da eta tesi zuzendaria: Mondragon Goi Eskola Politeknikoko Mikel Mendicute.

Epaimahaia horrela osatu zen:

Dr. D. John S. Thompson (University of Edinburgh)
Dr. D. Andreas P. Burg (École Polytechnique Fédérale de Lausanne (EPFL))
Dr. D. Luis Ignacio Santamaría Caballero (Universidad de Cantabria)
Dr. D. Iñaki Val Beitia (Centro de Investigación Tecnológicas IKERLAN)
Dr. D. Ion Iñaki Altuna Iraola (Mondragon Unibertsitatea)

Erabiltzaile anitzeko MIMO sistemetan prekodifikazio teknikek, adibidez VP (ingeleraz vector precoding) metodoak, jasotzaile bakoitzaren seinalea kanalaren egoera orokorraren ezagutzarik gabe eta modu independente baten interpretatzea ahalbidetzen dute estazio nagusian seinalearen pre-ekualizazio fase bat ezarriz. Doktoretza tesi honen helburu nagusia VP sistemetan perturbazio prozesuaren ondorioz ematen diren zailtasun teoriko eta praktikoei irtenbide egoki bat ematean datza.



Maitane Barrenechearen Tesia